

GAIZKI ERRANKA

Errua



Santi Leoné
@ororostorm

Odon Elorzak dio independentista katalanen errua dela Andaluzian Voxek goiti egin izana. Irantzu Varela dio errua –sorpresa, sorpresa, zeinek erran– gizonena dela. Maite Pagazaurtunduak dio EH Bildurekin paktatuz gero inork ez diola inori antidemokrata edo faxista deitzen. Daniel Bernabék dio ezkerrek duela errua, identitate politikan zatitu eta bere egiazko helburua galdu baitu. Alberto Moyanok ez du errua norena den erran, baina liburu bat berriz gomentatzeko aprobetxatu du –Eiríkur Örn Norðdahl-en *Illska, edo gaiztakeria*–, eta bidenabarkoan pasarte bat ekarri du gogora, dioena Ekialdeko Alemanian eskuin muturreko militanteak auzo pobreetako jendeari laguntzeko gauzak antolatzen ibiltzen ziren garaian, ezkertiarrek unibertsitateetako liburutegietan zeudela, Zizek irakurtzen. Zenbaitek dio ezkerria argot akademiko ulertezin bihurtu dela, eta horrek uxatu duela jendea. Jule Goikoetxeak dio ez dela feminista materialista antifaxisten errua ez badugu ezkertiar zuri esentzialisten eta Voxen arteko lotura ikusten.

Daniel Bernabék dio ezkerrek duela errua, identitate politikan zatitu eta bere egiazko helburua galdu baitu

Pablo Casadok, Albert Riverak eta Sergio Sayasek ez dute uste Voxek goiti egin izana inoren errua denik, ez dute kezkatzeko motiborik batere ikusten, eta horrek Adornoren *dictum*-a berresten du, zeinaren arabera argi eta garbi demokraziaren kontra jotzen dutenak baino arriskutsuagoak baitira demokraziaren gorpuztean mozturik txertatzen diren joera faxistak. Gorka Bereziartuak galdegin du nork erran behar zigun Espainian alderdi faxista bati botoa emango zion jendea zegoenik, “ha-rri-tu-ta nago”, gehitu du. Santi Leonék, ARGIA n zutabe bat duen arren, ez daki norena den errua, baina, erran didanez, bat egiten du Bereziartuaren harriidurarekin, uste baitu honen ironiak erakusten duela afera luzeagoa eta sakonagoa dela, bart nork zer egin duen baino. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



**GORA
ERRETPUBLIKA!**

